

ARRANTZA ETA BALE EHIZA EUSKAL KOSTALDETIK ARO BERRIAN ZE HAR

**Itsas gaien merkaturatzea XVI. eta XVII.
mendeetan**

Aitor Leniz Atxabal

2016-2017 ikasturtea

Álvaro Aragón Ruanok zuzendutako Gradu Amaierako Lana.
Historiako Graduko Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historiaren saila.
Universidad del País Vasco- Euskal Herriko Unibertsitatea.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. ARRAINEN ETA OGIEN MIRAKULUA.....	6
2.1. EUSKALDUNEN MERKATARITZA JARDUERA.....	6
2.2. BALEAREN ETA BAKAILAOAREN APROBETXAMENDUA.....	7
2.2.1. BALEA	7
2.2.2. BAKAILAOA.....	9
4. INBERTSOREEN MUNDUA.....	10
4.1. MERKATARI ETA INBERTSORE BURGOSTARREN GARRANTZIA XVI. MENDEAN.....	10
4.2. BURGOSEN GAINBEHERA ETA PROTAGONISTEN ALDAKETA XVII. MENDEAN.....	12
5. MERKATARITZA SAREAK	15
5.1. EUSKAL PORTUAK ETA INGURUKO MERKATARITZA “TXIKIA”	17
5.2. IBERIAR PENINTSULAKO MERKATARITZA	18
5.3. NAZIOARTEKO MERKATARITZA.....	20
5.3.1. FRANTZIA	21
5.3.2. INGALATERRA	23
5.3.3. FLANDRIA	24
6. ONDORIOAK	25
7. BIBLIOGRAFIA	26
7.1. AGIRITEGIKO DOKUMENTAZIOA	28
8. ERANSKINAK.....	30

[...]

Partitcen da Mariñela,
Bihotceean triste dela;
Gomendatcen Jaincoari,
Adio, dio Maïnadari.

Adios, Aïta, adios, Ama,
Behar handiac narama:
Neure Buraso çaharrac,
çuen hasteco beharrac.

Adios, neure Emastea,
Esposa maïte gastea;
tristeza dut partiada,
Seculacotz, behar bada.

Alabainan goan behar naiz,
Munduan biciko banaiz,
nic behar dut irabaci,
neurequin Maïnada haci.

Bici beharrez bicia
Benturatcen dut gucia;
Bici ustean hiltcera,
Banoha hurriscatcera.

[...]

Partiada tristeza Ternuara (Anonimoa, 1798)¹.

¹ MAIA, 2006, 38-39 orr.

1. SARRERA

Idazlan hau XVI. eta XVII. mendeetara mugatu behar izan dut Aro Berriaren denbora-tarte luzea kontuan hartuta. Euskal Herria Europako XV. eta XVII. mendeetako arrain eta bale-olio hornitzaile nagusienetakoa zen eskualdea izan zela frogatzea da lanaren helburua.

Espainiar estatuko Itsas Historiaren egoera ezagutzeko XIX. mendera arte jo behar dugu gutxienez. Funtsean, konkistatzaile, aurkitzaile eta antzekoetan zentratu ziren ikertzaileak garai honetan. Mendebaldeko demokrazietan 50. hamarkadarako Eskola marxistaren eta Annalestarraren bultzadaz Itsas Historia diziplina historikoen abaniko zabalaren barruan eskubide osoa lortzen zegoen bitartean, eskola espainiarra berrikuntza hauetatik at zegoen oraindik. Hau da, arrantzak eta bale-ehizaren historiak baztertuta egoten jarraitzen zuen. Hain zuzen ere, XX. mendearen azken herenera arte itxaron behar izan genuen berrikuntzak ikusteko. Euskal kasuan, inizatibak erakunde zientifiko batzuetatik sortu ziren, esaterako Gipuzkoako Sozietate Ozeanografikotik. Alde batetik, atzerriko ikertzaileen esku-hartzea azpimarratu behar da, horien artean Shelma Huxley 80. hamarkadan. Bestetik, unibertsitateen mundura gutxitan lotuak zeuden historialari partikularrek ere zeresana izan zuten; horien artean Aingeru Zabalak. Pizgarri horietatik, XX. mendearen azken hamarkadan instituzio berriak sortu ziren, Albaola edo Donostiako Itsas Museoa esaterako. Ordutik hona espezialitate honek jaso duen bultzada hazi egin da.

Ikergai honen historiografiaren garapenak zenbait arazo ere izan ditu. Batetik, paradoxikoa bada ere, oinarrizko informazio iturriaren oparotasuna daukagu. Hau da, dokumentu asko dago aztertzeko baina era berean Aro Berriko itsas ekonomiaren ikerketa dokumentazio multzo handi horren zati partzial batean soilik dago oinarritua. Ondorioz, Aro Berriko historiaren irudi desitxuratu bat sortu da. Horregatik, orain arte egin diren ikerketak mespretxatzeko intentziorik gabe, garai hau ondo aztertzeko oinarrizko informaziora bere osotasunean jotzeko beharra dago. Bestalde, beste arazo nagusi bat oraindik askotan ikerketak “gai-izarretan” soilik zentratzen direla da.

Gaur egunera arte egin diren ikerketa nagusienei dagokienez, Mariano Ciriquiain Gaiztarroren arrantza eta bale-ehizaren 30. eta 60. hamarkadetako ikerketa goiztiarrak dira lehenengotarikoak. Horregatik, gerora etorri diren lan guztien oinarrizko

informazioa izan da. Bere lana Euskal Herritik ikertuta dago. Baina Itsas Historiaren berpizkundera ezagutzeko, 70. hamarkadara arte itxaron behar izan genuen. Batez ere Selma Huxleyk ekarpenak egin zituenera arte. Batez ere Ternua eta Euskal Herriaren arteko Aro Berriko erlazioan zentratu zen eta horretarako hango ikerketa arkeologikoez eta Oñatiko Artxibategiko dokumentazioaz baliatu zen besteak-beste. Bere semea den Michael Barkhamek ere, ildoari jarraiki, Kanadako euskal arrantza eta bale-ehizan sakontzen jarraitzen du. Ikerlari hau historia ekonomiko eta sozialean nabarmendu da. Robert Grenier berriz, 70. hamarkada amaieratik aurrera Ternuako arkeologian zentratu da Kanada eta Euskal Herriaren arteko Aro Berriko erlazioaren inguruan, *Parks Canada's Underwater Archeology* taldearekin lanean. Laurogeita hamargarren hamarkadan Marck-André Bernier eta Willis Stevens ere lan taldera batu ziren.

Bestetik, 70. hamarkadaren amaieratik hasita José Luis Orella Unzuék Euskal Herriaren itsas ekonomia bere osotasunean ikertu du. 80. hamarkadako azken urteetatik gaur egunera arte, euskaldunen eta itsasoaren arteko erlazioari dagokien lanen inguruan José Antonio Azpiazu antropologoa daukagu, zeinak kutsu sozial bat ere eman dion Itsas Historiari adibidez emakumeen papera azpimarratuz. Azkenengo ekarpenen artean, hau da gutxi gora-behera 90. hamarkadatik aurrera, beste zenbait azterketa egin dira. Brad Loewen eta Vincent Delmasek batik bat arkeologia, antropologia, giza historia (baita ekologia ere esango nuke nik) uztartu dituzte. Beste alde batetik, Alberto Angulo Morales, Luis María Bilbao, Regina Grafe eta Hilario Casado Alonsok Aro Berriko ekonomiaren inguruan ere jardun dute. Lehenengo hirurak gehiago Euskal Herrian zentratu dira eta laugarrena, berriz, Burgos hirian. Jean Philippe Priotti ere euskal produkzioan, ekonomian eta merkataritzan zentratu da. Margarita Serna Vallejok berriz merkataritza eta arrantza-bidaien arlo juridikoa ikertu du esaterako. Xabier Alberdiri dagokionez, Euskal Herria eta itsasoaren arteko erlazioaren hainbat aspektu aurkeztu ditu. Gipuzkoan zentratu da batez ere eta inguruko probintziekin eta herrialdeekin lotu du. Bere helburuetako bat “interesen gatazka aztertzea” izan da.

Idazlan honen antolaketari dagokionez, ikergai zabal honen aurrean, muina bale-olioaren, arrainaren eta itsas-gaien merkaturatzean zentratu dut. Hala ere, idazlanaren luzera-mugak kontuan hartuta ezin izan dut nahi beste sakondu. Hasteko, bakoitzetik zer, nola eta zertarako aprobeztatzen zen azalduko dut eta baita guzti horren atzean zeuden XV. eta XVII. mendeetako tratularien eta inbertitzaileen jardueren “irudi” bat eman merkataritza hobeto ulertzeko. Azkenik, lan hau borobiltzeko, Euskal Herria

zentro gisa kontsideratuz, merkataritza-sare konplexuaren pintzelada batzuk emango ditut. Helburu hori lortzeko, lehenik eta behin fokua portu inguruan kokatuko dut. Gero, Penintsula Iberikoaren mailan, eta azkenik testuinguru internazionallean. Erabaki hau, elkar erlazionatzen diren merkataritza harreman mailak ordenatzeko irizpide bat baino ez da izan, kontuan izateko merkataritza ez zela mugatzen kostaldea eta Iberiar Penintsularen barnealdearen arteko salerosketara soilik.

Esker bereziak Álvaro Aragón Ruano eta Aitor Iturberi bere laguntza eta arretagatik.

2. ARRAINEN ETA OGIEN MIRAKULUA

2.1. EUSKALDUNEN MERKATARITZA JARDUERA

Aro Modernoko itsas-ekonomia Erdi Arokoaren jarauntsia izan zen eta eboluzio horrek Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi (Sevilla eta Kostaldeko Lau Hiribilduekin batera) XVI. mendean mundu mailako itsas aktibitatearen gorenean egotea eragin zuen (ALBERDI, 2012, 74 orr.).

Lehenik eta behin, euskal orografiatik Mediterraneoko zerealetan oinarritutako ekonomia ezinezkoa zenez, aspalditik Penintsula barneko eta Atlantikoko fatxadatik ekarritako elikagaien inportaziora jo behar izan zuten euskaldunek (AZPIAZU, 2015, 39 or.). Honen ordainetan 2. eta 3. sektoreen aurrerakuntza eman zen, inportazioen truke ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko. Bigarren sektorean sidero-metalurgia da azpimarragarria, zeina era berean ontzigintzarako eta beraz itsas-ekonomiarako beharrezkoa zena. Hirugarren sektorearekin lotutako beste aktibitate bat merkataritza zen. Lehengaiak kanporatu (artilea eta burdina batik bat) eta trukean produktu manufakturuak ekartzen zituzten kanpotik (ALBERDI, 2012, 74 orr.; GRAFE, 2001, 41 orr.). Laster, beste produktu batzuk ere sartu ziren merkataritzan, horien artean adibidez arraina eta bale-olioa.

Oso orokorki esanda, bale-ehiza eta arrantza, ustiategiaren kokapenaren arabera, hiru multzotan bana dezakegu. Batetik tokian-tokikoa, hau da, arrantzaleen jatorrizko bizitokitik gertukoa. Bestetik, erlatiboki gertu praktikatzen zena, Galiziako bale-harrapaketa esaterako. Azkenik, arrantza eta bale-ehiza transozeanikoa, hau da Ternuan

inguruan (Kanadako kostalde atlantikoan), Artikoan eta baita britainiar uharteetan bakailaoaren, sardinaren, legatzaren edota sardinzarraren arrantza ere (Ikus. 1. irudia) (ALBERDI, 2012, 265- 266 eta 277- 278 orr.; SERNA VALLEJO, 2009, 35- 45 orr.; GRAFE, 2001, 58- 60 orr.).

2.2. BALEAREN ETA BAKAILAOAREN APROBETXAMENDUA

2.2.1. BALEA

Balea itsasoan bizi den ugaztun eta zetazeo erraldoi bat da. Horregatik, ia gaur egunera arte arrain gisa ezagutu izan da. Balearen azpi-taldeei dagokionez: “Bi ziren euskaldunentzat balearik preziatuenak: Sardako balea, “euskalduna” edo “frankoa” (*Eubalaena Glacialis*) eta Gran Bayko balea (*Balaena Mysticetus*), “polarra” deritzoguna. Bestalde, XVII. mendean aipatutako bi balea mota nagusien kopurua jaitsi zenean katxaloteak edo “tronpak” harrapatzen hasi ziren (ALBERDI, 2013, 331-381 orr.; CIRIQUIAIN GAIZTARRO, 1961, 23- 33 orr.).

Balearengandik eskuratutako produktuak oso preziatuak izan ziren europarrentzat. Gantzetik erauzitako olioaz gain bizarrak edota hezurak ere aprobetxatzen zituzten eta era berean arraina ere garrantzitsua bihurtu zen Europako biztanle askoren dietan (BARKHAM, 2000, 41 or.).

Behin balea hilda zegoenean lehorrera eramaten zuten edo uretan bertan ontziaren albo batera lotzen zen. Ondoren, balearen zatikatzeari ekiten zitzaion gero zati horiek sutan urtzeko eta gantza, “saín”-a, eskuratzeko. Mingaina ere erauzten zen eta balearen “bizarrak” (baita “ballenas”) deituak garbitzen ziren. Azkenik, hezurdura ere garbitu egiten zen (saihetsak, ornoak...) hauek ere aprobetxatu egiten baitziren. Saihetsak kortseen, trajeen edota kapelen armadurak egiteko, hezurak ateen eta leihoen erlaintzak egiteko eta ornoak aulkiak egiteko adibidez (CIRIQUIAÍN GAIZTARRO, 1961, 113 orr., 117 orr.). Balea harrapatu, despiazatu eta gantza olio bihurtu arte, guztira, bi egun eta erdi inguru beharko zirela uste da.

Balearen azala tiratan askatetik zatiketaraino tresna ezberdinak erabiltzen ziren; aiztoak, poleak, sokak, zerrak, kakoak, aizkorak... Noski, kontuan hartu behar dugu lan hau lurrean ez bezala uretan egin ezkerro errazagoa zela baleari birak eman eta balearen

zirkunferentzia osoa suposatzen zuten tirak ateratzea (ALBERDI, 2012, 292-293 orr.; CIRIQUIAIN GAIZTARRO, 1961, 113-114 eta 122 orr.)².

Erauzitako gantz zerrenda bakoitzak 20 cm inguruko lodiera zuen. Gantz zati handiak eskuratu ostean, lanketa-mahaietara pasatu eta zatikatzaileek berriz zati txikiagoak egiten zituzten zeinak lapikoetan sartuak izango ziren urtzeko. Lapiko hauek labe handi batzuetan berotzen ziren. Prozesu honetan kea ugari eta kirats handia askatzen ziren eta gainera suteak eragin zitezkeen. Horregatik erreketak bizitokietatik at egitea eskatzen zen (CIRIQUIAÍN GAIZTARRO, 1961, 116-117 orr.).

Labeak lehorrean kokatzen zirenean aterpe edo etxola handiak ziren eta erdian galdara bat zeukaten. Labearen gainean lapikoak jartzen ziren eta urkilak, burruntzaliak, bitsaderak, palak... erabiltzen ziren gantza tratatzeko. Behin olioak lortuta, ur hotzez betetako beste galdara batera aldatzen zuten upeleratu aurretik, eta zikinkerik eta ezpurutasun pisutsuagoak hondoan geratzen ziren. Olioak normalean kolore zurixka, horixka edo gorrixka izaten zuen. Horixka izaten zen onena, olio kantitate gehien izaten baitzuen. Gorria berriz eskasena, hilda aurkitutako baleetatik lortzen zena. Hala eta guztiz ere, nahastu zitezkeen. Balearen arabera 70, 90, 100 edo baita kasu batzuetan 140 upel inguru bete zitezkeen, baina ezin dugu ahaztu upel hauen neurria aldatu egin zela behin baino gehiagotan kantitatea aldatzeko eta etekin ekonomikoa handiagoa izateko (nahiz eta estandarizatzeko saiakerak ere egin). Olioak, argiketarako erregai gisa erabiltzeko, larrua zurratzeko, xaboia egiteko eta oihalen ekoizte prozesuko lubrikazio faserako erabiltzen zen batez ere. Balea olioak aukera interesgarria zen Mediterraneo aldean eskuragarri ziren zenbait olio begetal ordezkatzeko (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 355 orr.; GRENIER, BERNIER, eta STEVENS, 2007, I, 77 orr.; CIRIQUIAÍN GAIZTARRO, 1961, 116-117 eta 122-123 orr.).

Produktu hauek Europako leku askotara heltzen ziren; batik bat olioak. Ematen duenez, euskaldunak ez zituzten baleatik eratorritako produktuak asko erabiltzen, hau da, gehiena merkaturatu egiten zuten, baina ezin dugu guztiz ukatu kontsumoa. Frantzia berriz, balearen okela bera ere jaten zen eta oso gustukoa zuten mingaina

² Euskaldunak, etsaien erasoak ekiditeko, "Sopite" sistema erabiltzen hastean, argi eta garbi prozesu guzti hau itsasoan egiten zuten. Izan ere, sistema honekin gantza urtzeko labeak ontzietan bertan instalatzen ziren, hau da, balea harrapatetik hasi eta kupelak balea-olioz bete arteko kate guztia kostaldetik urrun egiten zen. Historiografia euskaldun eta frantsesak, Diderotek entziklopedian idatzitakoa onartzen dute, hau da, François de Soupite ziburutarrek asmatu zuela teknika 1635an. Baina badirudi aldika arinagotik ere erabilia izan zela teknika hau. Beraz, François de Soupitek ziurrenik teknika iraunkor bihurtu zuela esan daiteke.

gazituta. Horren adibide daukagu 1627ko Asencio de Cortázar lekeitiarra eta Martín de Cedineren frantziarraren arteko tratua, zeinetan lehenengoak bigarrenari 16 bale-okela kupel saltzen dizkio 10 atun kupelen truke³. Laburbilduz, baleatik erauzitako produktuak beste leku batzuetara esportatuz etekin ekonomikoa ateratzen zuten euskaldunek. Lope de Isastiren arabera, zeina XVI. mendearen amaieran eta XVII.aren hasieran bizi izan zen gipuzkoar bat zen:

“De esta grasa [...] se abastecen algunas tierras de España, particularmente las de Navarra y Campos, para alumbrarse y labrar paños, y para algunas enfermedades del ganado, de que han hecho experiencia y se han allado bien. Llévase por mar a Flandes, Inglaterra y otras grandes Provincias” (CIRIQUIAÍN GAIZTARRO, 1961, 122-123 orr.).

2.2.2. BAKAILAOA

Arrantzari dagokionez bakailaoa⁴ edo *Gadus morhua* aipatzea beharrezkoa dela uste dut, nahiz eta arrain mota gehiago ere harrapatzen zituzten euskal arrantzaleek XVI. eta XVII. mendeetan (ORELLA UNZUÉ, 2003, 65 orr.; SERNA VALLEJO, 2009, 39 orr. ; LOEWEN eta DELMAS, 2012, 371 orr.)⁵.

Txalupa txikietan praktikatzen zen amuen eta tresnen bitartez. Arrain hau, nahiko denbora luzez kontserbatu zitekeen, eta beraz horrek erraztu egiten zuen herrialdeen barnealdeko salmenta. Bakailao “berdea” (“pastazkoa” ere deitua), gazitua baina ez lehortua, Frantzia iparraldean eta Ingalaterran errazago merkaturatzen zen, izan ere beharrezkoa zuen klima hotza denbora jakin baten kontserbatzeko. Aldiz, kontinente europarraren hegoaldeko kostetan, tenperatura altuagoa zela kontuan hartuz, bakailao lehortuak eta keztuak onarpen handiagoa zeukan (SERNA VALLEJO, 2009, 37-38 orr.). Euskaldunek batez ere lehortu egiten zuten bakailaoa, zeina orokorrean ez zen hain arrunta Europan. Marc Lescarboten zuzeneko testigantzen arabera, 1606-1607ko denboraldian jaso, hauxe zen prozesua:

³ Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (BFAH), Notario, Lequeitio, Narea Martín de, N0311/0379.

⁴ “Bakailaoaren salmentari buruzko aipamen zaharrena 1517. urtekoa dugu, produktu honetaz albisteak zaharragoak izan arren, eta, ekintza ekonomiko honen hasierak zerikusirik badu Ipar Amerikako bakailao-baltsa oparoen aurkikuntzarekin.” (ANGULO MORALES, 1999, 39 orr.).

⁵ Hainbat arrain espezie arrantzatzen zituzten euskaldunek garai hartan. Horien artean ezagunenak: sardinazarra, itsas aingira edo kongrioa, legatza, Galiziako sardina, sardina freskoa...

“en cuanto al bacalao seco es preciso secarlo en tierra. Hay numerosos puertos Terranova y en Bacaillos, donde los navíos anclan por tres meses. Al amanecer los marineros van a la campaña de salazón, a una, dos o tres leguas a tomar su carga. Para la una o las dos de la tarde han llenado cada cual su chalupa y vuelven al puerto donde hay un enorme muelle, especie de hórreo de madera construido al borde del mar, sobre el que descargan los pescados, como se echa las fajinas por la ventana de una granja. Allí hay una gran mesa sobre la que se acomoda el pescado descargado. Después de salarlo se lleva a secar sobre las rocas expuestas al viento o sobre el cascajo que el mar a amontado. A las seis horas se les da vuelta y así muchas veces. Después se recogen y se apilan y de nuevo lo mismo a los ocho días de estar al aire libre. Al fin, ya seco, se le prensa. Para secarlos es preciso que no haya bruma, porque se pudrirían ni demasiado calor porque se pondría rojo; sino tiempo moderado y ventoso” (URDANGARIN ALTUNA eta IZAGA REINER, 2014).

Onarpen handia izan zuen europar merkatuetan Aro Berri osoan zehar eta gainera oinarrizko elikagaia zen marinelen dietan. Merkaturatze prezioak ez ziren altuegiak, eta beraz klase sozial baxuen eskura ere bazegoen. Interesgarria da nola garizumako ostiraletan haragia jatea debekatua zegoenez, egoerak lagundu egin zuela bakailoa Euskal Herriko sukaldeetan ugaritzen (SERNA VALLEJO, 2009, 36 orr.; GRAFE, 2001, 149 orr.).

4. INBERTSOREEN MUNDUA

4.1. MERKATARI ETA INBERTSORE BURGOSTARREN GARRANTZIA XVI. MENDEAN

Goi Erdi Aroan Gaztelako Koroak kostaldeko zenbait herriri foru berriak eman zizkien. Errege-foru horiek zekartzaten abantailek, edo beste modu batera esanda portu hauetako biztanleei eskainitako zigorgabetasunek eta askatasunek, arrantza-jardueraren hazkundera nabarmen bultzatu zuten eta soberakina merkaturatzea erraztu zuten. Hala eta guztiz ere, oraindik batik bat garraiolari lanetan jardun zuten euskaldunek (ANGULO MORALES, 1999, 38 orr.). Horregatik, batez ere XVI. mendearen lehen erdialdean, oraindik diru-gizon boteretsu gehienak ez ziren euskal probintzietan kokatzen, Penintsulan barrurago baizik. XVI. mendean bazen toki bat non nabarmenki diru-kantitate handia mugitzen hasi zen: Burgos. 1494ko uztailaren 21ean, Errege Katolikoek Gaztelako Merkatarien Unibertsitateari (Burgosekoek irudikaturik)

merkataritza jurisdikzio autonomoa izateko, merkataritza erregulatzeko legeak izateko, tokiko eta atzerriko merkatarikongpainien arteko gatazkak konpontzeko, Europako portuetara zihoazen merkantzia gaztelarrez betetako konboiak antolatzeko, kargamentu horien itsas-aseguruak erregulatzeko eta antzeko ekintzetarako baimena eman zieten. Laburbilduz, Itsasoko Kontsulatua izateko baimena zuten eta aseguru etxe asko hantxe kokatu ziren edo bertako merkatarikongpainiak aseguratzaile gisa aritu ziren (CASADO ALONSO, 2005, 113 orr.). Burgostarrek beraz, XVI. mendearen lehen erdialdean bitartekari, merkatarikongpainiak eta inbertitzaile paper garrantzia izan zuten eta Euskal Herriko kostako probintzietatik antolatutako arrantza eta bale-ehiza kanpaina asko eta askoren antolakuntzaren atzean edota hauekin erlazionaturik egon ziren (BILBAO, 2003, 279 orr.). Noski, hauek beste hainbat ekintza ekonomikotan ere jarduten zuten. Aseguru gaztelarrak Ternuara, Brasileran (Felipe II.aren garaian), Indietara... joateko ziren eta itsasontziak, itsas-tresnak eta arrantza babestean zetzan. Hain zuzen, baita ere Kanadako kostaldeko bakailao arrantza eta bale-ehiza kanpainen joan etorriak babesteko (CASADO ALONSO, 2012, 945 orr. eta 2005, 115-117 orr.; GRAFE, 2001, 65-69, 72-75 eta 83-87 orr.).

Horrela, Aseguruen Nazioarte Burtsa bihurtu zen Burgos. Munduko polo ekonomiko eta botere zentro ezberdinetan kokatutako artekari eta komisionista batzuek, itsasontzien jabeak eta merkatarikongpainiak harremanetan jartzen zituzten. Era berean, notario-botereen bitartez, informazio hori Burgoseko seguru-artekarien kantitate zehatz bati (30 ingururi) pasatzen zitzaie informazioa, eta hauek arduratzen ziren hirian, Madrilan edo Medina del Campoko ferietan aseguru-polizaren gastua ordaintzeko prest zeuden jendea aurkitzeaz (CASADO ALONSO, 2012, 939- 941 orr.).

XVI. mendearen erdialdetik aurrera, merkatu internazionalan erabilitako tekniken arloan eta merkataritza instrumentuetan aldaketan eman ziren. Ordura arteko Erdi Aroko konpainen sistema zaharra (munduko puntu ezberdinetan agenteak izatean zetzana beste gauza batzuen artean) krisian sartu zen eta horren aurrean Europako merkatua berriz antolatzeko beharra sortu zen: bazkide tenporalen parte-hartzea eta komisio edo batzorde sistema. Laburbilduz, XV. eta XVI. mendeetako kapitalismoaren hedakuntzan sortutako merkataritza aristokraziak amaitu ziren eta merkatarikongpainien asko agertu ziren (flandiarrek, ingelesak, portugaldarrak, madrildarrak, bilbotarrak, sevillatarrak...) Gaztelako hirietan eta Euskal Herriko portuetan itsas-gaiekin salerosketan jarduteko. Ondorioz, Europa osoan sortutako kolonia burgostarrak krisian

sartu ziren 1550-1570 bitartean eta itsas-aseguruak Gaztelako eta Europako beste leku batzuetan ugaldtu ziren burgostarren aurreko arrakastaren aurrean (honek ez du esan nahi, krisi garai honetan dekadentzia larria bazen ere, totala izan zenik) (CASADO ALONSO, 2005, 127- 128 orr.). Geroz eta giro gerrazaleagoa zegoen eta itsaslapurrak ugaldtu ziren duda gabe. Beraz, hainbat merkatu gaztelar eta europarretan arazoak antzeman ziren. Herbehereetako altxamenduek (1568tik aurrera), Monarkia Hispanikoa eta Monarkia Frantsesaren arteko gerrak, merkatu ingelesean izandako arazoek, Felipe II.aren ogasun arazoetatik eratorritako presio fiskalak edota ordainketa-sistemaren anabesak, batetik merkataritza fluxua oztopatu zuten eta bestetik eskaintza eta eskarian arazoak eragin zituen (CASADO ALONSO, 2005, 125-127 eta 129 orr.).

Gainera, XVI. mende amaieran eta XVII. mende hasieran Madril jada Sevillarekin batera burokrazia, finantza eta merkataritza zentro bihurtu zen Gortean finkatutako negozio-gizonekin. Ondorioz, Burgos gainditu zuen itsas-ekonomiako aseguru eta itsas-gaien salerosketa kantitatean ere (CASADO ALONSO, 2005, 130 orr.; BILBAO, 2003, 280 orr.; GRAFE, 2001, 175-176 orr.).

4.2. BURGOSEN GAINBEHERA ETA PROTAGONISTEN ALDAKETA XVII. MENDEAN

XVII. mendean egitura mutazioak gertatu ziren ekonomian eta nazioarteko sektorean izan zen aldaketa gehien jasan zituena (BILBAO, 2003, 259 orr.).

XVII. mendearen hasieran zehar arrain negozioaren arrakastak leku eta negozio ezberdinetan sartutako bai Gaztelako eta bai atzerriko merkatarikopuru handi baten partaidetza ekarri zuen. Horregatik, balea eta arraina harrapatzeko kanpainak finantzatzeko geroz eta merkatarikopainia gehiago sortu ziren eta lehen batik bat burgostarrek zeukaten monopolioa beste protagonista batzuek ordezkatu zuten: atzerritarrek eta tokian-tokikoek. Euskal Herrian bilbotarrak, baionarrak eta gasteiztarrek gailendu ziren esaterako eta inportatzaile atzerritarrek kokatu ziren Madril eta kostaldeko zenbait tokitan. Besteak-beste, Gasteiztarrek, ontzi jabeekin eta aipatutako Madrilgo arrain inportatzaileekin zituzten harreman estuei esker, aparteko garrantzia eskuratu zuten XVII. mende hasieran (ANGULO MORALES, 1999, 37 orr.; BILBAO, 2003, 279 orr.; CASADO ALONSO, 2005, 127-130 orr.).

Kanpotarrei dagokienez, XVII. mendearen hasieran Madrilen kokatuta zeuden merkatarien kantitate handi bat osatzen zuten. Merkatari edo inportatzaile hauen jatorriari dagokionez, portugaldarrak, espainiarra, flandriarrak, frantziarrak eta italiarrak datoz baina atzerritar guztiak gehituz gero espainiarren kopurua baino altuagoa dela esan beharra dugu (ANGULO MORALES, 1999, 41-42 orr.).

Bilbon bertan diru-gizon gaztelarren, euskaldunen atzerritarren presentzia handiagotzen joan zen. Burgostarren gainbeherarekin eta ekonomiaren aldaketa globalekin bat, duda ezina da 1630-1650 bitarterako Bilbon inoiz baino atzerritar gehiago zeudela, nabarmenki ingelesak. 1585etik Hego Euskal Herriko itsasgizonak itsasoz haraindiko ustategietatik kanporatuak izan zirenez, arrain asko kanpotarrek ekartzen zuten (BILBAO, 2003, 279-280 orr.).

Madrileko kasura bueltatuz, bitxia da bertan finkatutako gehiengoa portugaldar judutar konbertsoek osatzen zutela. Judutar herriak, Erdi Aroko *progrom*-ak jasan ostean berrantolaketa bat bizi izan zuen Europan eta XVI. mende amaieran hauen kokapena mendebaldeko Europan oinarritu zen. Konkretuki merkataritza portu garrantzitsuenetan, Baltikotik Italiara, Amsterdamen zuelarik fokurik handiena. Era berean, 1580an Portugal Monarkia Hispanikora atxikitzean, juduen migrazio fluxua aktibatu zen Portugaldik ekialderantz. Arrazoi honengatik, judutar konbertso portugaldarrak edo *marrano*-ak Madril, Gasteiz eta antzeko tokietan kokatu ziren eta ohikoa zen bezala finantza eta merkataritza jardueretan sartu ziren. Familia-erlazioak, historia eta erlijioa zirela eta, harreman-sare konplexu bat osatu zuten Europa osoan ekonomia ekintzetarako erabilgarria izan zena (BILBAO, 2003, 281 orr.).

Baina ez Madrilen bakarrik. Euskal Herriko bi monarkien alde batean eta bestean judutar portugaldarren presentzia goiztiarra izan zen ekonomia arloan (BILBAO, 2003, 281 orr.). Badakigu ere, Gasteizen kasuan, XVI. mendearen bukaeran eta XVII. mendearen lehen erdian zehar merkatari eta bitartekari gasteiztarren bezero nagusiak nazioarteko merkatu sarturik zeuden Madrilgo eta Gaztelako hiri nagusietako tratulari eta merkatari portugaldarrak izan zirela (ANGULO MORALES, 1999, 44 orr.).

XVI. eta XVII. mendeetan konpainiak eta inbertsioak ugaltu ziren Euskal Herrian eta merkataritza-konpainia gehienak senitarteko mailakoak izan ziren. Hau da, Espainian bezala, proiektu makal xamarak ziren eta beraz senitartekoen arteko konfiantza ezinbestekoa zen.

XVII. mendearen lehenengo erdian, Gasteizko diru-gizonek bitartekari lanak egin zituzten Europa iparraldetik zein Espainia barnealdetik eginiko salerosketekiko besteak-beste kanpotik ekarritako arrain zamekin. Etekinak izateko, bazekiten sare sendo bat osatzeko beharra zeukatela eta beraz, merkatari gasteiztarrek beste hiri eta portu askotako merkatarietako harremanak indartzen hasi ziren. Noski, merkatari baten ohiko eginkizunak ere betetzen zituzten; baita kortsario ekintzetan inbertitu ere (ALBERDI, 2012, 906-907 orr.). Gasteiz Koroak izendatutako aduana puntua zen Europatik bidalitako produktuentzako eta horrek aktibitate-ekonomiko bat suposatu zuen (ANGULO MORALES, 1999, 42-44, 49 orr.).

Ondorioz, XVII. mende hasieran, zehazki 1610 eta 1614 bitartean, Gasteizko merkatariak kostaldeko ontzi-jabeekin eta beste merkatari batzuekin Ternuarantz eta Norvegiarantz joateko itsasontzi batzuk hornitzeko nahiz prestatzeko kontratuak ere egin zituzten; hau da, konpainiak. Gutxi iraun zuen, Espainiako arrain-merkatua kontrolatzeko saiakerak ez baitzuten arrakastarik izan (ANGULO MORALES, 1999, 44 orr.).

Arrantza eta bale-ehizarako konpainia guzti hauek ezaugarri komun batzuk zituzten:

- a) Merkatarietako eta tratularietako inbertsio gehienak eskudiruz ordaintzen zituzten.
- b) Negozio horretan partaide bakoitzak hasiera-hasieratik lortutako irabaziak nahiz galerak bazkide guztien artean banatuko zirela onartzen zen. Galerak, guda, pirateria edo klimatologiagatik izan zitezkeen.
- c) Eginiko diru-inbertsioak ontziteria hornitu eta prestatzeko ziren.
- d) Kontratuetan zehazki jartzen zen bueltako bidaiari non porturatu eta deskargatu behar zituzten produktuak. XVII. mende hasieran Kastro, Donostia, Bilbo edo Pasaia ziren helmugak normalean⁶.
- e) Konpainia hauek osatzeko kontratuetan kapitainei ere aukera berezi bat ematen zieten, tratularietako sortutako diru-kopuru osoa eta ehuneko 27'5 itzuli ondoren, ekarritako sabela bereganatzen zutelarik (ANGULO MORALES, 1999, 45-46 orr.).

⁶ Adostutako tokian porturatu ezean, merkatarietako eginiko inbertsioa berreskuratzeko eskubidea zeukaten eta gainera ontziteriaren kapitainak %27'5a ordaindu behar ziren.

1610etik 1614ra, Donibane Garaziko Sabat de Iturbide ontzi-jabe entzutetsuak Donostian bizi zen Joanes Bortuete Euskal Herri osoan zehar inbertitzaile bila bidali zuen arrantza eta bale ehizarako ontziteria prestatzeko diru bila. Merkatari-talde honetan mota askotako inbertsoreak zeuden, Ternuarantz bidalitako itsasontziak eta ontziteriak hornitzeko diru kantitate handiak eta txikiak egiten zituztenetatik hasi eta Gaztelako Koroaren barnealdeko hirietara zihoazen arrain inportazioen merkaturan parte hartzen zutenetara arte. Sabat de Iturbidek Lekeition ere merkataritza tratuak izan zituela ikusi daiteke. Beraz, baliteke kostako herri txikietatik ere dirudun gizonen bila ibili izana⁷. Hala eta guztiz ere, Iturbide, Gasteizko merkatari hauek eta abarrek sorturiko konpainiak 1614ko udara arte iraun zuen. Arazoak sortzen hasi ziren eta hauek ontziteria eta negozio honen desagerpena eragin zuten (ANGULO MORALES, 1999, 46- 50 orr.).

5. MERKATARITZA SAREAK

XVI. eta XVII. mendeetan merkataritza sare konplexu bat osatu zen munduan. Europa mailan, Amerika eta Europa bitartean eta Iberiar Penintsulan bertan zentratzen bagara ere, ikusiko dugu oso sare korapilatsua sortu zela eta hainbat eta hainbat produktu trukatzeko zirela. Beraz, askotan merkatari berberak produktu askorekin jarduten zuen eta merkataritza-bide batetik mota ezberdinetako salgaiak garraiatzen ziren (GRAFE, 2001, 135 eta 179-180 orr.). Ondorioz, lan honetan arrantza eta bale-ehizarekin loturiko produktuen trukaketan zentratzen saiatuko naiz baina tarteka beste produktu batzuk aipatu beharrez ere izango naiz. Azkenik, gogoratzea gustatuko litzaidake lanaren atal honetan merkataritza sareen irudi orokor bat ematen saiatuko naizela, baina egia esan gai hau gaur egunean ere ondo aztertu gabe dagoela:

“Laurier Turgeon wrote that, although the Terranova fisheries were the Europeans’ main activity in North America during that period, the role of these fisheries in the development of the Atlantic economies and Canada’s protohistory is still poorly understood. Years later, this statement remains largely true, since so many aspects of whale product marketing in the 16th century are still unclear” (GRENIER, BERNIER eta STEVENS, 2007, I, 77 orr.).

⁷ BFAH, Notario, Lequeitio, Narea Martin de, N0309/0388 eta N0309/0393.

Lehenik eta behin, esan beharra dago euskal lurraldeari dagokionez, Hego Euskal Herria eta Ipar Euskal Herria bakoitza bere aldetik aztertzeak pixka bat lausotu egiten duela ikerketa, eta egokiagoa litzatekeela probintzia-maila kontuan hartzea marko ekonomikoa hobeto ulertzeko. Honekin esan nahi dudana da, politikoki bi estaturen artean banatuta zegoela lurraldea baina gero banaketa hori ez zela guztizkoa eta hartumana nahiz merkataritza egon zela haien artean. Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi merkataritza puntu garrantzitsuak izan ziren⁸ atzerritik ekarritako produktuak jasotzeko eta lurraldean barneko produktuak (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 354-355 orr.).

Bestalde, bai merkatariak eta bai ontziak itsas-nabigazioaren osagarritasunagatik ezaugarritzen ziren. Hau da, pertsona eta ontzi berdinek hainbat egoera eta ibilbidetan jarduten zuten eskaria eta irabazi hipotetikoaren arabera (CASADO ALONSO, 2012, 962 orr.; BARKHAM, 1984, 103 orr.).

Erdi Arotik hasita Euskal Herriak merkataritza sareak osatu zituen Europako kostaldeko hainbat punturekin. Bale-olioa eta arrantza produktuak ere artilearen merkataritza-bide berdinak jarraituz kanpora bidaliak izaten hasi ziren geroz eta gehiago. Normandia, Ingalaterra eta Flandria ziren ezagunenak (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 355 orr.)⁹. Portuen artean, XVI. mendeko portu txikien ugaritasun horretatik Bilbo bihurtu zen garrantzitsuena 1635erako, atzetik berriz Donostia eta azkenik Donibane-Lohizune eta Baionakoak. Bilbon artilea eta burdina esportazio produktu garrantzitsu bihurtu ziren. 1560 eta 1570eko hamarkadetako bale-ehiza eta arrantza aktibitateen gorakadak gehi 1602an Bilbo Bizkaiko hiriburu izendatzeak, Nerbioi ibaian hainbat obra egitea eragin zuen ontzien zirkulazioa errazteko. Ondorioz nagusitasuna azpimarratu zuen gainerako portuekiko (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 357 orr.)¹⁰. Gainerako hiru portuetatik Donostiak zeukan aktibitate ekonomikorik handiena eta euskal arrantza transatlantikoaren zatirik handiena hartzen zuen. Merkataritza, itsasontzi-eraikuntza, hornidura eta nabigazio puntu garrantzitsua bihurtu zen inguruan zeuzkan portu txikiagoek bere “itsas muskulua” indartzen zutelarik

⁸ Erdi Arotik hasita, beraz zenbait mendetan zehar, ekonomia eta demografía barnealdetik kostaldera pasatu zen. Aldaketa honek, era berean, kostaldeko hiru probintzien arteko desoreka handitu zuen itsasontzien ekipamenduan eta baita ere salgaien ezberdintasunak areagotuz lurralde bakoitzean.

⁹ Esan beharra dago era berean marinel euskaldunek eta zehazki bale-harrapatzaile euskaldunek entzute handia lortu zutela testuinguru internazionalan.

¹⁰ Espainia eta Frantziako monarkien arteko gatazka txikiek ere, Bilbok ekipamenduen zentru izatearen papera areagotu zuten Donostiaren ganetik.

(LOEWEN eta DELMAS, 2012, 355-357 orr.; BILBAO, 2003, 285 orr.; GRAFE, 2001, 149 orr.).

5.1. EUSKAL PORTUAK ETA INGURUKO MERKATARITZA “TXIKIA”

Hasteko, euskal kostaldeko portuetako tokiko sarearekin hasiko naiz; ontziteriaren horniketarekin lotuta dagoena (janaria ea bestelako materialena) eta tokiko arrantza. Esaterako Lapurdiko ontziteria Baiona inguruko produktorekin lotuta zegoen eta ardoa, garia, zenbait lekale, ahateren eta beste animalia batzuen gantza, ezitia, erretxina, kalamua, ibar-basoetako egurra... eskuratzen zituzten (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 357 orr.). Hego Euskal Herrian, XVII. menderako, badirudi Gipuzkoak zeukala arrantza eta bale-ehizarako ontziteria handiena eta beraz Gipuzkoar ekonomiaren zati bat horniketara gidatu zutela ekoizleek eta merkatariek, Probintziako buruekin elkarlanean. Azken hau askotan merkatariek beraiek osatzen zutenez, elkarren interesak babesten zituzten. XVI. mendetik Donostia inguruan sagardoa eta txakolina produzitzen ziren (bidaietan ur geza amaitzen zenean sagardoa, ardoa, txakolina... edaten zituzten) eta Pasaia, Donostia eta kasu batzuetan baita Lapurdi bera hornitzen zituzten produzitzaileen interesen alde zegoen legedi zorrotz baten bitartez. Esaterako, 1680an Donostiako kontseiluak hartu zuen erabakian ikusten dugu ez zutela inolaz ere onartu nahi lapurtarrak Donostia ingurukoa ez zen sagardoarekin itsasoratzea (LONBIDE, 2012, 271, 273- 274 eta 324 orr.; LOEWEN eta DELMAS, 2012, 357 orr.).

Ontziak ere Euskal Herrian egiten eta konpontzen zirela kontuan harturik inguruko eraikuntza-materialak ere garraiatzen ziren kostaldeko portuetara. Kordelak, errementaritza-lanak, aingurak... (ALBERDI, 2012, 419 orr.)¹¹. Burdina eta egurra bezalako hornigaiei dagokienez probintziek hauentzako guneak zehaztu zituzten. XVI. mendean, portuen inguruan zehazki ontziteriara zuzendutako basoak bultzatu ziren (ALBERDI, 2012, 462 orr.)¹² eta burdina Somorrostitik erauzi eta kostaldean zehar garraiatzen hasi ziren (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 358 orr.; BARKHAM, 1984, 114 orr.; PRIOTTI, 2011, 16 orr.; ALBERDI, 2012, 419 eta 462 orr.).

¹¹ Beraz lanbide asko batzen ziren elkarren osagarriak zirenak: arotzak zizelkatzeko eta eskulturak egiteko, errementariak, garraiolari txikiak, baso-gizonak...

¹² Esanguratsua da XVI. mendearen 2. erdialdean Koroa basogintza sustatzeko politikak aplikatzen hasi zela Armadako ontzien eraikuntzara bideratzeko egurra.

Aipagarria da XVII. mendeko Bizkaia eta Arabako zeramika mota ezberdinak ere aurkitu direla Ternuan: pitxer zatiak adibidez (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 383 eta 391 orr.).

Ahaztu gabe, kostaldeko herrietako aktibitatearik garrantzitsuena arrantza zen eta honen gaineko zergak ere ez ziren txikiak. Bisigua, sardina, itsas-aingira, mero zuria eta legatza ziren arrantzatutako espezie nagusiak eta XVII. mende hasierara arte, ez zen arraroa baleak harrapatzea Kantauriko kostan, 1550 eta 1650 bitartean jarduera hauetako euskal porturik garrantzitsuenak Portugalete, Bilbo, Plentzia, Bermeo, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orío, Donostia, Pasaia, Hondarribia, Hendaia, Donibane-Lohitzune, Biarritz... izan ziren (GRAFE, 2001, 40 eta 59 orr.).

5.2. IBERIAR PENINTSULAKO MERKATARITZA¹³

Fokua pixka bat zabalduz gero, hurrengo merkataritza sareek Iberiar Penintsularen barnealdearekin eta gainerako kostaldearekin lotzen dute Euskal Herria. Era berean produktuen aniztasuna ere handitu egiten da (GRAFE, 2011, 57-58 orr.).

Bale-olio eta arrain gehiena Bilbotik eta Donostiatik sartzten zen. Bilbotik sartzten zen olioak, Gaztela eta Ebro bailarara eramaten zen hasiera batean, eta Donostiatik sartzten zena berriz Nafarroara adibidez. 1520. hamarkadara arte, ikusi dezakegu Gaztelako artile guneetara eramaten zela batik bat; Burgos ingurura (GRENIER, BERNIER eta STEVENS, 2007, I, 77 orr., LOEWEN, eta DELMAS, 2012, 355- 357 orr.; GRAFE, 2001, 43 eta 179-185 orr.).

Ondoren, Ebro bailaratik ere ontzien hornikuntzarako materialak ekartzen zituzten eta noski, era berean itsasotik ekarritako produktuak Miranda de Ebro bezalako puntuetara ere heltzen ziren. Brad Loewen eta Vincent Delmasen esanetan, bertatik kalamua edota upelak egiteko uztaiak eskuratzen zituzten adibidez. Protokolo notarialetan pixkatxo bat arakatuz, 1642an Martín de Puerto Uribek (Lekeitio eta Ean bizi zena) Miranda de Ebrokoa zen Juan de Álavari 36 bale-olio kupel saldu zizkion

¹³ Ikusi 2. irudia. XVI. mendeko itsasontzien hornidurarako beharrezko materialen gertuko merkataritza sarea. Ikusi 3. irudia. Goi Erdi Aroko eta XVI. mendeko Penintsula Iberikoko bale-ehiza ustiategiak, XVI. mendeko bale-olioaren esportazioa Penintsula barnealdera eta XVI. eta XVIII. mendeen arteko zeramika tailerrak (itsasontziak hornitzeko). Biak daude “eranskinak” atalean.

esaterako¹⁴. Aragoiko Mueletik berriz maiolika eskuratzen zen pitxerrak, platerak... egiteko. Ipar Euskal Herrian dagoen Adur bailaratik ere janaria, ardoa, ibai ondoetako egurra (zumea, kalamua...) eta antzeko produktuak lortzen ziren. Pirinio aldetik, berriz, mastak eta ontzi-belaunak eskuratzen zituzten (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 358-359, 366, 377, 382- 383 eta 391 orr.).

Iberiar Penintsulako beste bide bat Euskal Herria eta Sevilla lotzen zituen zen. Han, kargaren zati bat saltzen zuten bidaia finantzatzeko eta irabaziak izateko. Ondoren, Ternuara zuzenean edota, ohikoagoa zen bezala, Euskal Herrirantz edo Atlantikoko Europako beste portu batzuetarantz jotzen zuten. Bidean eskala Portugalen egitea ohikoa izaten zen (Lisboan batik bat) (CASADO ALONSO, 2012, 961-962 orr.; GRAFE, 2001, 59 orr)¹⁵. Jose Luis Orellak dioen moduan: “Los principales puertos portugueses a los que arribaban los barcos vascos eran Lisboa, Setubal, Oporto, Aveiro, Viana y Tavira. Para luego llegar a puertos andaluces tales como Sevilla, Sanlúcar de Barrameda y Cádiz.” (ORELLA UNZUÉ, 2003, 79 orr.). Euskaldunek, hain zuzen, aktibitate ekonomiko handia zeukaten Sevillan eta kolonia bat osatu zuten Ameriketara joateko bidaiarekin lotua: XV, XVI eta XVII. mendeetako garrantzitsuenetakoa (CASADO ALONSO, 2012, 955 eta 960 orr.).

Bale-olioa, tresnak, oihalak, egurra eta burdina bezalako beste zenbait produktu batzuen truke Andaluziatik oliba-olioa eta fruta eramaten omen zituzten Euskal Herrira (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 359 orr.; PRIOTTI, 2011, 18 orr.). Bestalde, zeramikazko produktuen kantitate bat Sevillatik eta Portugaldik ere eramaten zutela adierazten digute Ternuan aurkitutako aztarnek, izan ere erabilgarriak ziren kanpaina hauetan ere (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 366 orr.). Baita 1998an Lekeition induskatutako zeramikazko tina erraldoiek ere, Sevillatik XVI. mendearen azken laurdenean ekarriak izan zirela diruditenak, horixe frogatzen dute. Tina hauek bale-olioa gordetzeko erabili omen zituen Lekeitioko María Ortiz de Abaroak XVI. mendeko bigarren erdialdean. 1998an bertan Donostian aurkitutakoak ere posible da Sevillakoak izatea, oso antzekoak baitira. Baina ez dakigu irmotasunez (ITURBE, 2014, 36-47 orr.). Gainera, Hilario Casado Alonsoren hitzetan, XVI. mendean Sevillan zeuden itsasontzien gehiengoaren jabea euskalduna zen, bai Sevillan bertan edo Euskal

¹⁴ BFAH, Notario, Lequeitio, Loibe Juan De, N0248/0218.

¹⁵ Portugalen ohikoa zen gatza eskuratzea (zeina arraina gatzatzeko baliogarria zen) trukean han beste salgai batzuk uzten zituztelarik.

Herrian kokatua, eta horregatik askotan Andaluziako ontziteriaren parte kontsideratzen dira. 1571rako Bizkaian, Gipuzkoan eta Cuatro Villasen existitzen zen flotaren heren bat jada Andaluzian saldu zen “por género de mercancía” eta hortik XVII. mendeko 20. hamarkadara arte, hau da, Aro Berrian Espainiak bere koloniek izan zuen merkataritza momentu onenera arte, Indietako Karrera parte hartu zuen flotaren parte handi bat euskal jatorrikoa zen (CASADO ALONSO, 2012, 961 orr.; BILBAO, 2003, 278 orr.; GRAFE, 2001, 61-62 eta 968-969 orr.).

Madril hazten (handitzen) zihoan heinean bertako eskaria ere handitu egin zen. Hori ikusten dugu adibidez 1649an Diego de Riaño Gamboak (dokumentuan “Gaztelako presidente” gisa adierazten da) Bilboko “pescado bacalao y cecial”-aren prezioa ezagutzeko gogoia adierazten zuen karta batean gero Madrileko salmenta prezioa doitzeko¹⁶. Edota Juan Díez de Ardiles bilbotar merkataria Francisco de Cuelles Cantabranako garraoilariari sustatutako 1667ko auto kriminala ere badago. Arrazoia, 3 izokin kaxa eta bakailaoaren beste bat Diego Fernández de Fresno madrildarrari ez entregatzea izan zen¹⁷.

Kantauri itsasoko kostak kontuan hartzen badugu, noski, euskaldunek Galizia edota Asturiasekin ere tratatzen zuten esaterako (UNZUÉ ORELLA, 2003, 79 eta 88 orr.).

5.3. NAZIOARTEKO MERKATARITZA¹⁸

Merkataritza internazionalari dagokionez, Monarkia Hispanikoak merkaturik handienak Amerikako kolonietan, Mediterraneo herrialde batzuetan eta Europako fatxada atlantikoan izan zituen. Idazlanean, azken merkatu honetan zentratuko naiz batik bat eta zehazki Frantzia, Ingalaterra, eta Flandrian (Europa iparraldea baitzen merkatu nagusia). Hala ere, kontuan izatekoak dira baita ere besteak beste Irlanda (Dublin batik bat), Eskozia, eta Baltikoko Hansa (Tronsberg, Bergen, Lund, Scarsa, Stokolmo eta Upsala). Azken honetara arraina eta bale-olioa ez omen zen beste leku batzuetara bezain beste garraiatzen (UNZUÉ ORELLA, 2003, 65, 88-89 eta 103 orr.; CASADO ALONSO, 2005; 121 orr.; GRAFE, 2001, 46 orr.).

¹⁶ BFAH, Judicial, Corregidor, Civil, JCR3302/011.

¹⁷ BFAH, Judicial, Corregidor, Criminal, JCR0746/017.

¹⁸ XV. eta XVI. mendeetako Gaztelaren merkataritza internazionala “Eranskinak” atalean dago.

Gainera, merkatari atzerritarrek ere betiereko ordezkariak kokatu zituzten euskal portuetan arraina eta bale-olioarekin negoziatzeko batez ere XVII. mendetik aurrera (GRENIER, BERNIER eta STEVENS, 2007, I, 77-78 orr.; GRAFE, 2001, 53 eta 173-175 orr.).

5.3.1. FRANTZIA

Euskal Herria eta Frantziaren arteko erlazioa nabarmengarria da, zeina XVI. eta XVII. mendeetan oso garrantzitsua izan zen. Esan beharra dago, Euskal Herriko kostaldeko probintzien administrazioari dagokionez, Gipuzkoa eta Bizkaia (Hego Euskal Herria) Monarkia Hispanikoan zeudela eta Lapurdi (Ipar Euskal Herria) Frantziako Koroan. Beraz, bi potentziak arerioak ziren uneetan alde baten eta bestearen arteko erlazioa arriskuan aurkitzen zen. Hala ere, badakigu harremana ez zela sekula eten eta lapurtar ontziteriak marinel gipuzkoar trebeen lan-eskuaren beharra zeukala eta hego-euskaldunek, 1585ean Ternuatik kanporatuak izan ziren unetik, lapurtarren ontziteriaren beharra zeukatela han ehizatzen eta arrantzatzen jarraitzeko. Alde bien arteko merkataritza ere ezin bestekoa zen bizirauteko. Esaterako, 1554an Frantzia eta Espainiaren arteko gudaren testuinguruan, Koroak jakien truke Frantziara balea, sardina eta bakailoa eramateko baimenean ikusi dezakegu besteak beste Euskal Herriko portuen eta Frantziakoen arteko konexioa¹⁹. Ondorioz, kortsarioen jarduera leundu eta salerosketa fluxua errazteko “Tratado de Conversa” edo “de Buena Correspondencia” idatzi eta behin eta berriz berriztatu eta sinatu zen 1536-1537tik 1696ra arte Kantauriko kostaldeko alde bietako zenbait probintziaren eskutik. Gero, Foru legediaren barruan sartu zen (ALBERDI, 2012, 279-281, 328-329, 908- 910 eta 685- 686 orr.; BILBAO, 2003, 265 orr.; GRAFE, 2001, 60 orr.).

XVI. lehen erdialdetik hasi eta bigarren erdialderako, Frantzia Monarkia Hispanikoaren ardi-larru, artile eta arrain merkatu garrantzitsuenetakoa bihurtu zen. Frantziako hainbat porturekin zeukaten lotura euskaldunek: Gaskoinia eta Guianan (Hendaia, Donibane-Lohizune, Baiona, Burdeos...), Britainiarantz hurbilduz beste hainbat (La Rochela, Sain Gilles...), Britainian bertan (Nantes, Brest, Saint Malo...) eta azkenik Normandian (Rouen, Le Havre, Caen...). Noski, guzti hauek gero barnealdeko beste hiri batzuekin loturik zeuden. Ontzien hornidurari lotuta, Landetatik pinuaren erretxinezko produktuak erosten zituzten eta Mont de Marsanetik, hau da, hiriburutik,

¹⁹ Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (AGG-GAO), JD IM 1/10/5.

haragi kontserbatua, gantza eta zerealak garraiatzen zituzten euskal portuetara. Hornigaiak eskuratzeko beste toki garrantzitsu bat Burdeosek kontrolatzen zuen Garonako bailara zen. XVI. mendean badakigu erabakigarria zela euskal lurraldeentzat, baina egia esan XVII. mendean ez da ondo ezagutzen nolako pisua izan zuen. Hiriko merkatariak maileguak eskaintzen zizkien kapitain euskaldunei eta era berean hauek barnealdeko produktuak erosten zituzten. Modu honetara, Donibane-Lohizune eta Donostiak itsas-gaileta, gari, ardo, ilar, sardina, soka eta upel-uztai kargamentu handiak jaso zituzten. Baita kupelak, zeramikazko tresnak, sukalderako tresnak, pitxerrak. Produktu asko bidaia transozeanikoetan eramango zituzten. Badakigu XVI. lehenengo herenerako bretoiak frantziar gatza garraiatzen espezializatu zirela. Hilario Casado Alonsok dioenez, La Rochellen adibidez, XV. eta XVI. mendeetan burgostar merkatari handiek artilearekin, gariarekin eta baita balea eta arraina harrapatzeko tresnariarekin negoziatzen omen zuten. Ternuan aurkitu diren euskal kokaguneetako artefaktuen XVI. mende amaierako eta XVII. mende hasierako aztarnak jarraituz, frantziar beira fina eta Frantzia hegoaldeko eta Normandiako gresarekin egindako zeramikazko objektuak ere heltzen ziren euskal portuetara. Bizkaia eta Lapurdiren arteko 1653 eta 1694ko akordioen arabera berriz, zereala, bakailao lehorra eta freskoa, bale olioia eta okela, belak, istinkatzeko materiala... ekartzen omen zituzten (LOEWEN eta DELMAS, 2012, 359, 366- 368, 374-375 eta 389 orr.; BILBAO, 2003, 261 eta 272-273 orr.; CASADO ALONSO, 2012, 938 orr. eta 2005, 123 orr.; ORELLA UNZUÉ, 2003, 73 eta 89 orr.; GRAFE, 2001, 155-159 orr.). Ehunka adibideren artean, 1567an, Bilboko “ateratzeen epailea” eta Nanteseko Perrin anai merkatarien ordezkari zen Juan Ochoa de Noviaren arteko auzia dago Frantziara bidaltzeko ziren ehunka burdin kintal eta gantz kupelen inguruan²⁰.

Beste alde batetik, esaterako Ternuatik ekarritako bale-olioari dagokionez, Frantzian handizkariak hornitzaileei erosi eta gero European merkaturatzen zituzten. Birsaltze operazioak oso zatikatuak izan ziren, izan ere artekarien kapa mordoa pilatzen ziren. Hego Euskal Herritik bidalitakoaz gain, batik bat olioia Donibane-Lohizune eta Baionatik sartzen zen tokiko eta beste zonalde batzuetako merkatuetarako (GRENIER, BERNIER eta STEVENS, 2007, I, 77 orr.).

²⁰ Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa (AHPG-GPAH) 3/3359, 156r-169v.

5.3.2. INGALATERRA

Inglaterra ere beti izan da merkatu garrantzitsua Monarkia Hispanikoarentzat. Jose Luis Unzué Orellak dioen bezala, XVI. mendean jada, merkataritza hartu-emanak zeuden euskaldunen eta Inglaterra edota Irlandaren artean. XVII. mendean loturak oraindik gehiago estutu ziren (ORELLA UNZUÉ, 2003, 65 orr.; BILBAO, 2003, 277 eta 279 orr.).

Gogoratu beharra dago 1585an ingelesek euskaldunak Ternuatik bota zituzten garai esanguratsua. Isabel I.a Inglaterrakoa eta Felipe II.a Espainiakoaren artean erlazioak okerrerantz egin zuten eta merkataritza harremanak aldaketak jasan zituen. Ingelesek Amerika ustiatzeko eskubidea indartu zuten eta itsasontzi irlandar eta ingelesak Iberiar Penintsulara arraina maizago ekartzen hasi ziren, Virginia, Maine, Massachusetts, Labrador eta abarretik (BILBAO, 2003, 273, 275 eta 277-280 orr.; GRAFE, 2001, 60 eta 136 orr.; CASADO ALONSO, 2005, 127-128 eta 130 orr.).

Inglaterrako porturik aipagarrienak Londres, Bristol, Dover, Plymouth eta Southampton dira, eta Irlandan, berriz, Dublin. Oihalak bezalako manufakturak, larrua, kontserbak eta bakailaoa ekartzen zituzten esaterako inguru hartatik eta Euskal Herritik berriz burdina, bale-olioa, burdinazko aingurak eta antzeko elementuak, artile gordina, Iberiar Penintsulako beste puntu batzuetatik lortutako ardoa, fruitu lehorrak, frutak, azukrea, espezieak, gatza... eramaten zituzten trukean (PRIOTTI, 2011, 19 orr.; BILBAO, 2003, 264 eta 270 orr.)²¹. Regina Grafek dioenez izokina eta sardina ere ekartzen zituzten ingelesek, irlandarrek eta eskoziarrek. Salgaien trukaketen adibideak aztertzen baditugu, Miguel Horrek (San Juan eta Santa Ana itsasontzien jabeak), esaterako, gatza, ardoa eta beste zenbait merkantzia Irlandara eramateko eskaria egin zuen²² eta 1589an Manuel Hermoso eta Juan Benamir Andaluzek Bilboko Juan Martínez de Alzari Irlandako 134 larrugatik ordaindu beharrekoa adierazi zioten²³. Ipar Amerika, Inglaterra eta Euskal Herriaren arteko konexio triangeluarra egiaztatzeko 1650ean Lorenzo de Garayk marinel ingelesaren bitartez Virginiatik ekarritako bakailaoa

²¹ Bai Inglaterra eta bai beste herrialdetan, bale-olioaren eta arrainaren gainetik burdina eta artile gordinaren salmenta egon ziren XVI. eta XVII. mendeetan Xabier Alberdi Lonbide eta Álvaro Aragón Ruanoren ikerketetan arabera.

²² BFAH, Judicial, Consulado, Mercantil, JCR0304/017.

²³ BFAH, Judicial, Corregidor, Notarial, JCR0086/205.

Bilbotik Gaztelara eramateko baimena da kasu adierazgarri bat²⁴ (ORELLA UNZUÉ, 2003, 65-66, 72-77, 89, eta 100-101 orr.; BILBAO, 2003, 270 eta 277-278 orr.; CASADO ALONSO, 2005, 117 eta 122 orr.; BARKHAM, 2000, 64 orr.; GRAFE, 2001, 136, 149 eta 156 orr.).

5.3.3. FLANDRIA

Flandriako merkatua ere azpimarragarria izan zen Monarkia Hispanikoarentzat eta beraz euskaldunentzat. Merkatari burgostarrentzat, XV. eta XVI. mendeetan plazarik garrantzitsuena izan zen, artilearen negozioagatik gehien bat, eta XVI. mendearen erdialdetik aurrera ontzi flandriarrak beste atzerritar batzuk bezala geroz eta gehiago joaten ziren portu euskaldunetara besteak beste arraina eta bale-olioa eskuratzen. Zirkulazio honek ere garai hobeak eta txarragoak izan zituen 1568ko altxamendutik aurrerako panorama belikoaren arabera. Dudarik gabe porturik garrantzitsuenak Brujasekoa, Anberesekoa eta Amsterdanekoa izan ziren XVI. eta XVII. mendeetan. Artileaz gain, Frantzia eta Ingalaterrako kasuetan azaldu dudan bezala, baita beste produktu batzuk ere saltzen zituzten Iberiar Penintsulako puntu ezberdinetatik jasoak. Esan produktu horien zati bat Europan barrena Alemania aldera zihoala. Handik, trukean, oihalak, larruak, kontserbak eta arraina ere ekartzen zituzten Euskal Herrira. Baina badaude salgai berezi batzuk ere Herbehereetatik ekartzen zituztenak. Horien artean egurra (Flandriako pinua...) eta egurrezko manufakturak. Zehazki, eraikinak eta itsasontziak egiteko piezak (askotan Suediako egurrez eginak) edota mota guztietako altzariak (idazmahaiak, eskribautza eserlekuak, gerri-aulkiak, bankuak, banketak eta abar). Bestetik baita luxuzko zenbait produktu ere: tapizak, bordatuak, triptikoak, erretaulak... (ORELLA UNZUE, 2003, 65- 77 eta 89 orr.; BILBAO, 2003, 260-261, 264-265 eta 270 orr.; CASADO ALONSO, 2005, 115, 122 eta 127-128 orr., eta 2012, 968 orr.; BARKHAM, 2000, 62 orr.).

Adibideen artean, Bilbon kokatutako Juan de Fimbres flandiarra eta Juan de Llanoren kasua daukagu. Lehenengoak 5 kintal bakailao eta beste zenbait produktorengatik dirua eskatzen dio bigarrenari 1662an²⁵. Bestetik, Juan de Landaverde

²⁴ BFAH, Juzgado De Contrabando, Criminal, JCR4129/056.

²⁵ BFAH, Judicial, Corregidor, Civil, JCR1567/014.

eta aipatzen ez diren beste batzuen San Salvador ontzia 1564an Flandriara gatza eramateko prest zegoen²⁶.

Interesgarria da areriotasun hispano-flandiarra piztean, merkataritza fluxuak ez zirela eten; moldatu baizik. Aurretik esan bezala, kristaututako judutar portugaldarrak XVI. mende amaieran Iberiar Penintsulan eta Frantzian zehar banatu ziren. Flandrian eta zehazki Amsterdamen batik bat, kontaktuak zeuzkatenez (kolonia portugaldarra), “ordezko kate” bat sortu zuten bi herrialdeak lotzeko; batez ere itsasoz baina baita lurrez ere. Itsasontzi neutralekin, eroskeriekin, pasaporte faltuekin, lizentziekin eta antzekoekin jokatu zuten. Horietako judutar kristautu asko Hanburgo, Baiona eta Donibane-Lohizunen kokatuak zeuden (BILBAO, 2003, 277 eta 280-285 orr.).

6. ONDORIOAK

Idazlan hau oso sakona izan ez bada ere, zenbait ondorioetara heldu naiteke. Batetik, itsas produktuen eta horiekin lotutako salgaien (gatza, itsasontzien piezak...) merkataritza eta garraio sarea ez dagoela askorik ikertuta. Artilea edota burdina bezalako produktuen salerosketari buruzko ikerketak ugariagoak dira arrainaren eta bale-olioarekin konparatuta. Nolabait eklipsatuta geratu dira. Baita itsas-kanpainen atzean zeuden diru-mugimenduak. Are gehiago, bale-olioa eta arraina beraien artean alderatzen baditugu, arrainaren merkataritza oraindik baztertuago dagoela iruditzen zait agian bale-ehizaren mundua ikusgarriagoa delako. Guzti hau kontuan hartuta, artilea, burdina, garia eta antzeko produktuen merkataritzaren ikerketak jarraitu ditut askotan bale-olioak eta arrainak ere antzeko bidea jarraituko zutelakoan. Badakigu ontzi berdinetako bodegetan produktu ezberdinak batera nahasturik joaten zirela (ORELLÁ UNZUE, 2003, 66 orr.). Hala ere, horrek ere ez du esan nahi irudi guztiz erreal bat denik. Kronologia eta toki bakoitzari dagokionez berezitasunak egongo dira ziurrenik.

Bestetik, bale-olioa eta arraina Amerikar kontinentera garraiatzen ote zituzten edota euskaldunek Asia eta Afrikarekin arlo honetan zeukaten harremana ere aztertzeko eta frogatzeko dauden gai ilunak direla iruditzen zait.

²⁶BFAH, Judicial, Corregidor, Notario, JCR0893/091.

Azkenik, kontuan hartu behar dugu gaur eguneko estatuen eta nazioen muga fisikoak eta kulturalak ez direla iraganekoen berdinak eta beraz oztopo bat izan daiteke Euskal Herriko ekonomia aztertzeko ere. Dakigun bezala, Euskal Herria XVI. mendean jada Monarkia Hispanikoaren eta Frantziar Monarkiaren artean banaturik zegoen, beraz, alde biak kontuan hartu behar dira. Euskal Herria bada ikergaia, irudi faltsu bat sortzen da soilik alde bat edo bestea ikertuz.

Guzti honegatik, etorkizunean ikertzeko geratzen den gai bat dela uste dut eta interesgarria litzateke kanpoko herrialdeetatik ere (beste ikuspegi batetik) behatzea Euskal Herriko merkataritza mota hau.

Ondorioztatu dudanaren arabera, gorakada eta beherakada momentuekin, XVI. eta XVII. mendeetan Frantziarekin eta Ingalaterrarekin tratuak ugariak izan ziren, bai inportazioan eta bai esportazioan, eta produktuak ere mota askotarikoak izan ziren. Baita Flandriarekin ere esaterako. Ahaztu gabe, esan beharra dago kontrabandoa ugaria izan zela eta guzti hori ez dagoela erregistratuta, beraz benetako “irudi” bat lortzeko, atal ilun hau ere azertu beharra dagoela iruditzen zait.

Laburbilduz, euskal portuek pisu handia izan zuten European arrainaren eta bale-olioaren merkaturaketan behintzat XVI. eta XVII. mendeetan eta hori idazlanean adierazi ditudan itsas ekonomiaren ekintza ezberdin eta mordoan nabari da.

7. BIBLIOGRAFIA

- Alberdi Lonbide, X. (2012). *Conflictos de intereses en la economía marítima gipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (Doktoradutza lana).
- Alberdi Lonbide, X. (2013). “El más oculto "secreto": las cacerías de cachalotes y la industria del refinado del esperma en el País Vasco durante los siglos XVII y XVIII”, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 69. alea, 1-2, 331-381 orr.
- Angulo Morales, A. (1999). “Arrantza-merkatuan Gasteizko merkatariek izandako partaidetza eta inbertsioak (XVII. mendearen hasieran)”. *Uztaro*, 28, 37-58 orr.

- Azpiazu, J. A. (2015). *Y los vascos se echaron al mar*. Tarttalo argitaletxea, Donostia.
- Barkham Huxley, M. (1984). “La construcción naval vasca en el siglo XVI: la nao de *uso multiple*”. *Vasconia: Cuadernos de historia-geografía*, 3, 101-126 orr.
- Barkham Huxley, M. (2000). “La industria pesquera en el País Vasco peninsular al principio de la Edad Moderna: ¿una edad de oro?”. *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, Donostia, Untzi Museoa, 3, 29-75 orr.
- Bilbao, L. M. (2003). “Comercio y transporte internacionales en los puertos de Vizcaya y Guipúzcoa durante el siglo XVII (1600-1650)”. *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, Donostia, Untzi Museoa, 4, 259- 285 orr.
- Loewen, B. eta Delmas, V. (2012); “The Basques in the Gulf of St. Lawrence and Adjacents Shores”. *Canadian Journal of Archeology*, 36, 351-404 orr.
- Casado Alonso, H. (2005). “La edad dorada del comercio burgalés (siglos XV y XVI)”. *Historia del comercio de Burgos*, Burgos, Federación de Empresarios de Comercio de Burgos, 113- 134 orr.
- Casado Alonso, H. (2012); “El comercio de Nueva España con Castilla en la Época de Felipe II: redes comerciales y seguros marítimos”. *Historia mexicana*, El Colegio de México, 61. alea, 3, 935- 993 orr.
- Ciriquiain Gaiztarro, M. (1961). *Los vascos y la pesca de la ballena*. Txertoa Argitaletxea, Donostia.
- Grafe, R. (2001). *Entre el mundo ibérico y el atlántico. Comercio y especialización regional 1550-1650*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Grenier, R.; Bernier, M. A. eta Stevens, W. (2007). *The underwater archeology of Red Bay. Basque shipbuilding and whaling in the 16th century*. “Volume I archeology underwater: the project”. Parks Canada. Altona (Manitoba). Vol. I.
- Iturbe, A. (2014). “Beheko kaleko altxorra”. *Kurik*, 1, 36- 47 orr.
- Maia, J. (2006). *Apaizac obeto*. Elkarlanean S. L., Donostia.

- Orella Unzué, J. L. (2003). “Comerciantes vascos en Normandía, Flandes y la Hansa: 1452-1526”, *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 4, 65- 114 orr.
- Priotti, J.P. (2011). “Producción y comercio del hierro vizcaíno entre 1500 y 1700”. *Historia de Plentzia: dinámicas sociales s. XVI-XIX*, 57, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 15-32 orr.
- Serna Vallejo, M. (2009). *Los viajes pesquero-comerciales de guipuzcoanos y vizcaínos a Terranova (1530-1808): régimen jurídico*. Marcial Pons ediciones jurídicas y sociales, S. A., Madril.
- Urdangarin Altuna C. eta Izaga Reiner, J. M. (2014). GNet/gipuzkoa.net: *Oficios tradicionales/ Oficios relacionados con el mar*. “Pescadores de bacalao: las tareas”. <http://www.oficiostradicionales.net/es/mar/bacalao/trareas.asp>. 2017ko maiatzaren 16an kontsultatua.

7.1. AGIRITEGIKO DOKUMENTAZIOA

Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa.

- Saila: Notarial, Funtsa: Lequeitio, Azpifuntsa: Narea Martin de, Katalogo-zenbakia: N0309/0388, Datak: 1611-01-04, Orriak: 2.
- Saila: Notarial, Funtsa: Lequeitio, Azpifuntsa: Narea Martin de, Katalogo-zenbakia: N0309/0393, Datak: 1611-03-06, Orriak: 1.
- Saila: Notarial, Funtsa: Lequeitio, Azpifuntsa: Loibe Juan de, Katalogo-zenbakia: N0248/0218, Datak: 1642-05-06, Orriak: 2.
- Saila: Judicial, Funtsa: Corregidor, Azpifuntsa: Civil, Katalogo-zenbakia: JCR3302/011, Datak: 1649-11-12, Orriak: 4 PO.
- Saila: Judicial, Funtsa: Corregidor, Azpifuntsa: Criminal, Katalogo-zenbakia: JCR0746/017, Datak: 1667-02-17/1667-06-19.
- Saila: Notarial, Funtsa: Lequeitio, Azpifuntsa: Narea Martín de, Katalogo-zenbakia: N0311/0379, Datak: 1627-12-05, Orriak: 1.
- Saila: Judicial, Funtsa: Consulado, Azpifuntsa: Mercantil, Katalogo-zenbakia: JCR0304/017, Datak: 1695-04-09, Orriak: 0002.

- Saila: Judicial, Funtsa: Corregidor, Azpifuntsa: Notarial, Katalogo-zenbakia: JCR0086/205, Datak: 1589-11-18, Orriak: 0001.
- Saila: Judicial, Funtsa: Juzgado de contrabando, Azpifuntsa: Criminal, Katalogo-zenbakia: JCR4129/056, Datak: 1650-11-13, Orriak: 0001.
- Saila: Judicial, Funtsa: Corregidor, Azpifuntsa: Civil, Katalogo-zenbakia: JCR1567/014, Datak: 1662-04-21/1662-07-10, Orriak: 0010 PO.
- Saila: Judicial, Funtsa: Corregidor, Azpifuntsa: Notarial, Katalogo-zenbakia: JCR0893/091, Datak: 1564-09.18, Orriak: 0001.

Gipuzkoako Agiritegi Orokorra.

- Erreferentzia-zenbakia: AGG-GAO, JD IM 1/10/5, Datak: 1554, Deskribapen maila: Unidad documental.

Gipuzkoako Protokoloen Agiritegi Historikoa.

- Erreferentzia-zenbakia: AHPG-GPAH 3/3359, 156r-169v, Datak: 1567-02-11 Fuenterrabia, Deskribapen maila: Unidad documental.

8. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

Atlantiar itsasoaren iparraldearen irudia, *Google Maps* bitartez 500km-ko altueratik ikuskatua, non Aro Berriko arrantza eta bale-ehiza ustiategi nagusiak kokatuak dauden.



2. ERANSKINA

XVI. mendeko itsasontzien hornidurarako beharrezko materialen gertuko merkataritza sarea.




FIGURE 4. Reconstructed supply networks for the Basque fisheries.

3. ERANSKINA

Goi Erdi Aroko eta XVI. mendeko Penintsula Iberikoko bale-ehiza ustiategiak, XVI. mendeko bale-olioaren esportazioa Penintsula barnealdera eta XVI. eta XVIII. mendeen arteko zeramika tailerrak (itsasontziak hornitzeko).





FIGURE 3. The geography of the Basque whale oil trade and known provenances of ceramics found on Basque sites in the Gulf of St. Lawrence.

4. ERANSKINA

XV. eta XVI. mendeetako Gaztelaren merkataritza internacionala.

4. irudia.



El comercio internacional castellano en los siglos XV y XVI.